## 2020ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 11 ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

**Programa:** 10 ARABAKO PSISZREN KUDEAKETA ARAUTZEA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 11 BOMBEROS FORALES DE ALAVA

**Programa:** 10 REGULACIÓN DE GESTIÓN DEL SPEIS DE ÁLAVA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

2020ko ekitaldia COVID-19ak munduan eragin duen osasun krisiak markatu du. Hori gorabehera, unitateak lanean izan dira lurraldean 24 orduz urteko 365 egunetan, eta 2.950 esku hartze egin dira ekitaldian.

Horrez gain, gure erakundeak lan gehiago egin behar izan ditu, hala nola foru egoitzak desinfektatu, eta azkar eta koordinatuta egin ditu lan horiek.

Bestalde, erakundearen bi zerbitzuak berrantolatzen eta baliabide tekniko eta profesional nahikoa jartzen jarraitu da. Ekitaldian egin diren LPZren aldaketak horren erakusgarri dira: Giza Baliabideen eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuan, ekonomia teknikari plaza bat eta administrari plaza bat finkatu dira. Zerbitzu Operatiboan, kaboen bi plaza amortizatu dira, eta ikuskatzaile plaza bat sortu da.

Mundu mailako osasun pandemia dela eta, atzeratu behar izan dira langileen finkatze eta sustapen prozesuak, EPE eta barne sustapenen bidez egin beharrekoak. Hala ere, erakunde autonomoko lanpostuak finkatzeko asmoa gauzatzeko, 2020ko EPEaren deialdia egin da, eta 16 plaza atera dira.

Suhiltzaile berrientzako prestakuntza akademia bat egin da, beste administrazio batzuekin batera, eta 11 suhiltzailek hartu dute parte, erakundearen kontura.

Azken urteotan, zerbitzuan emakume gehiago izateko neurriak hartu dira eta helburua lortu da; hori dela eta, SISEUen egiturak egoera horretara egokitzeko ekintzak abian jarri behar izan dira, eta haietako zenbaitetan esku hartzeak egin dira.

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

El ejercicio 2020 ha estado marcado por la crisis sanitaria a nivel mundial provocada por la COVID-19. Pese a ello, se han mantenido las unidades operativas a lo largo del territorio 24 horas durante los 365 del año, realizando 2.950 intervenciones durante el ejercicio.

Así mismo, se han incrementado las labores a realizar por parte de nuestro Organismo, como la desinfección de residencias forales, a las que se ha atendido rápida y coordinadamente.

Por otra parte, se ha continuado con la labor de redimensionamiento y dotación de medios técnicos y profesionales suficientes a los dos servicios del organismo. Las modificaciones de RPT realizadas durante el ejercicio son prueba de ello; En el servicio de RRHH y Gestión Administrativa se han consolidado una plaza de técnico/a economista y una plaza de administrativo/a. En el Servicio Operativo se han amortizado dos plazas de cabo y se ha creado una plaza de inspector/a.

Debido a la situación de pandemia sanitaria a nivel mundial, se han tenido que retrasar los procesos de consolidación y promoción del personal a través de OPE y promociones internas. No obstante, para materializar la voluntad de consolidación de los puestos de trabajos del Organismo Autónomo se ha llevado a cabo la convocatoria de OPE 2020, en la que se han convocado 16 plazas.

Se ha desarrollado una academia de formación para nuevos bomberos/a, de forma conjunta con otras administraciones, en la que han participado 11 bomberos/a, con cargo al Organismo.

La mayor incorporación de mujeres al servicio operativo, como resultado de las acciones que se han venido desarrollando durante los últimos años, para favorecer su entrada en el mismo, ha supuesto la puesta en marcha de acciones para adaptar las estructuras de las UCEIS a esta situación,

## 2020ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 11 ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

**Programa:** 10 ARABAKO PSISZREN KUDEAKETA ARAUTZEA

Sektoreko genero arrakala desagerrarazteko ekintzak bultzatzen jarraitu beharra dagoenez, erakundean berdintasun plana sortzeko ekintzak egin dira.

Bestalde, ekitaldi honetan ere ahalegin handia egin da langileek beren betekizunak betetzeko behar dituzten janzkiak eta esku hartzeetarako materiala izan ditzaten; zehazki, honako hauek erosi dira: hotzetik babesteko arropa, trafikoko esku hartzeetarako arropa, harrapatuta geratzen direnak ateratzeko ekipo bat, ibilgailu berrien ekipamendua eta abar.

2020an, ibilgailu hauek jarri dira zerbitzuan: ur edukiontzi bat, kabina bikoitzeko ponpa auto bat, bi pick-up ibilgailu eta altueretarako ibilgailu bat. Azken erosketa horrekin, SISEU guztiak hornitu dira altueretan esku hartzeak egiteko ibilgailuz.

Horrez gain, tresna eta programa informatikoak ezartzeko jarduerak gauzatu dira, erakundearen kudeaketa erraztu eta hobetzeko. Jarduera aipagarriena da tresna informatiko bat jarri dela zerbitzu operatiboko langileen ordutegi kontrolerako.

Zerbitzua kudeatzeko behar izan diren funtzionamendu gastu guztiak kontratatu dira: horniketak, aseguruak, mantentze lanak…

**Beste administrazio batzuekiko lankidetza hitzarmenak.**

Erakundeak sinatutako hitzarmenak eguneratu dira, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak xedatutakora egokitzeko.

2020ko ekitaldian, beste lankidetza hitzarmen bat sinatu da Gasteizko Udalarekin, eta erakundeak 400.000,00 euroko ekarpena egin du.

Era berean, hitzarmen berriak egin ziren Logroñoko eta Miranda Ebroko udalekin eta Errioxako Autonomia Erkidegoarekin, lurralde horien mugakide diren Arabako eremuetan prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua emateko.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 11 BOMBEROS FORALES DE ALAVA

**Programa:** 10 REGULACIÓN DE GESTIÓN DEL SPEIS DE ÁLAVA

realizándose intervenciones en varias de las mismas.

Como consecuencia de la necesidad seguir impulsando acciones tendentes a eliminación de la brecha de género existente en el sector, se han desarrollado acciones para la creación de un Plan de Igualdad del Organismo.

Por otra parte, se ha continuado con un esfuerzo importante para dotar al personal del material de intervención y vestuario necesario para el ejercicio de sus cometidos, materializándose en este ejercicio, en la compra de vestuario contra el frío, vestuario para intervenciones de tráfico, compra de un equipo excarcelador, equipamiento de nuevos vehículos, etc.

Durante el año 2020, han entrado en servicio los siguientes vehículos: un contenedor de agua, una autobomba de doble cabina, dos vehículos pick-up y un vehículo de altura. Con esta última incorporación se dota a todas las UCEIS de vehículos para intervenciones en altura.

Así mismo, se han llevado a cabo acciones para la introducción de herramientas y programas informáticos, que faciliten y optimicen la gestión del organismo, siendo la más relevante la introducción de una herramienta informática para el control horario del personal del Servicio Operativo.

Se han contratado todos los gastos de funcionamiento precisos para la gestión del servicio: suministros, seguros, mantenimientos, etc.

**Convenios de Colaboración con otras Administraciones.**

Para adaptar los Convenios suscritos por el Organismo a la Ley 40/2015, de 1 de octubre, sobre Régimen Jurídico del Sector Público, se han llevado a cabo actualizaciones de los mismos.

Durante el ejercicio 2020 se firmó un nuevo convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Vitoria, aportándose por parte del Organismo 400.000,00 euros al mismo.

De la misma manera se formalizaron nuevos Convenios con los Ayuntamientos de Logroño y Miranda de Ebro, y con la Comunidad Autónoma de La Rioja para la prestación del Servicio de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento

Bestalde, zerbitzua ematen jarraitu da Trebiñuko enklabean eta Burgosko eremu mugakideetan.

2020ko ekitaldian lankidetzan jarraitu da Kanpezu - Arabako Mendialdeko zein Gaubeako babes zibileko boluntario taldeekin.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Lehenengo helburua izan zen SISEUen 24 orduko irekiera finkatzea. 2020ko ekitaldian egitura hori finkatu da, eta ahalegin handia egin da egitura hori operatibo mantentzeko 24 orduz 365 egunetan.

Kontuan hartuta ezarritako helburua zela Arabako lurralde osoan su itzaltze, prebentzio eta salbamendu zerbitzua ematea, helburua oso ondo betetzat jotzen da.

Bestalde, aurrerapausoak eman dira erakundea bere eginkizunak egiteko behar dituen materialez, ibilgailuz eta azpiegituraz hornitzeko. Horri lotuta, Foru Aldundiak Laudioko SISEUrako eraikin bat eraikitzeko lanak lizitatu ditu.

Zerbitzua emango dela bermatzeko, beste administrazio mugakide batzuekiko  lankidetza hitzarmenak eguneratu dira.

2020ko ekitaldirako gainerako helburuetan eragin handia izan du COVID-19ak ustekabean eragindako munduko osasun krisiak.

Lehenik eta behin, txanda libreko eta barne sustapeneko enplegu eskaintzen deialdiak atzeratu behar izan dira. Deialdi horiei berriz ekingo zaie egoerak ahalbidetzen duenean, deialdietan parte hartzen dutenen segurtasuna bermatzeko.

Prebentzioaren arloan, segurtasun arrazoiak direla eta, ezin izan dira gauzatu programatutako prebentzio kanpainak, ahalegin osoa su itzaltze eta salbamendu zerbitzuak mantendu eta ematera bideratu baita. Horregatik, lantoki eta ikastetxeetan ere ez dira egin



en las áreas alavesas limítrofes con sus territorios.

Por otro lado, se ha continuado con la prestación de servicio en el enclave de Treviño y zonas limítrofes de Burgos.

Durante el ejercicio 2020 se ha seguido colaborando con las agrupaciones de voluntarios de protección civil tanto de Campezo-Montaña Alavesa y como de Valdegovía.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

El primer objetivo consistía en la consolidación de la apertura de las UCEIS a 24 horas. Durante el ejercicio 2020 se ha consolidado esta estructura, realizando esfuerzos importantes para mantener operativa esta estructura durante 24 horas 365 días.

Teniendo en cuenta que el objetivo que se define es la prestación del Servicio de Extinción y Prevención de Incendios y Salvamento en todo el territorio de Álava, el cumplimiento del objetivo se considera como muy satisfactorio.

Por otro lado, se ha avanzado en dotar al Organismo de los medios materiales, vehículos e infraestructuras necesarias para el desempeño de sus funciones. A este respecto, se ha licitado por parte de Diputación Foral, la construcción de un nuevo edificio para la UCEIS de Llodio.

Para garantizar la prestación del servicio, se han actualizado los Convenios de colaboración con otras administraciones limítrofes.

En el resto de objetivos para el ejercicio 2020, la irrupción de la crisis sanitaria mundial provocada por la Covid 19, ha tenido una alta influencia.

En primer lugar se han tenido que posponer las correspondientes convocatorias de empleo, tanto por turno libre, como por promoción interna. Estas convocatorias serán reanudadas en cuanto la situación lo permita, en aras de garantizar la seguridad de los intervinientes en las mismas.

En la vertiente de prevención, por motivos de seguridad, no se han podido desarrollar las campañas de prevención programadas, ya que se han destinado todos los esfuerzos al mantenimiento y la prestación de los servicios de extinción y salvamento. Es por

prebentzioa xede duten bisitak. Aipatzekoa da, ordea, eraikinak desinfektatzeko esku hartze bana egin dela, hartara modu aktiboan parte hartuz lurraldean COVIDaren aurkako borrokan.

Azkenik, zenbait prestakuntza saio egin dira erakunde autonomoko segurtasun eta osasun arloan, eta 23 langilek hartu dute parte.

Erakundearen helburua lan arriskurik ez egotea den arren, 2020ko ekitaldian 15 jazoera izan dira.



ello que, no se han desarrollado tampoco las visitas a centros de trabajos y centros escolares con fines de prevención. Cabe reseñar que por el contrario se han llevado sendas intervenciones en la desinfección de edificios, participando de manera activa en la lucha contra la COVID en el territorio.

Por último, se han llevado a cabo varias formaciones para en el ámbito de seguridad y salud del Organismo Autónomo, en las que han participado 23 personas.

Aunque el objetivo del Organismo es conseguir que no haya accidentes laborales, durante el ejercicio 2020 se han producido 15 incidentes.